

**EUSKARA ETA ADMINISTRAZIOA
GOGOETA BATZUK**

Euskarak gaur egun Euskal Herri barruan duen egoera arakatzen hasterakoan, garrantzi handikotzat jotzen dut Administrazio alorreko egoera aztertzea, eduki ere eragin handia eduki dezakeelako euskararen iraupenean.

Administrazio deitzen dugunaren atzaparrak hain zabalak izanik, gizarte moderno honetan nekez lor genezake euskararen iraupena ziurtatzea berari alor horretan leku egokia egin gabe.

Hizkuntzak, hiztunek erabilia izan dadin, gizarte barruan «ospea» edo begirunea behar du, osterantzean, piskanaka-piskanaka baztertua izango delarik. Hori dela eta oso garrantzi handiko zera dugu euskarak administrazio barruan bideak egitea.

A) Administrazioa eta euskaldunon eskubideak

Aipatu dugu, administrazioaren atzaparrak zabalak direla eta hainbat alor barru hartzen dituztela. Errealitate hori abiaburutzat hartuz, Euskal Herriko administrazioa aztertzerakoan eta euskaraz burutua izatea eskatzerakoan, laburkiro bada ere, honako puntuok izan behar ditugu kontutan:

1) Administrazioa, orokorrean, herriaren kontura sortua (herriarren zergen bidez ordaindua) eta beraren zerbitzuan aritzeko eraturakotako iharduna dugu. Beraz, oso-osoan eginkizun horri erantzun behar dio administratuen zerbitzuan arituz.

2) Administrazioaren eremua aztertzerakoan zehazkiro beraren mugak zehaztu beharra dugu, hainbat administrazio alor ageri baitzaizkigu inguruetan:

- a) *Estatuko administrazioa* (agiri ofizialak: N.A.N., pasaportea, ... lortzeko; zenbait zerga ordaintzeko; hainbat baimen —esaterako manifestazioak egiteko— eskatzeko; armada, aduanetakoa, ...), hots, Autonomiaren eremuko administrazioei eskualdatuak izan ez zaizkien alor guztiak barne hartzen dituena.
- b) *Autonomi Administrazioak* (Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren): eskuratuta dituzten transferentzien arabera (irakaskuntza, osasun zerbitzuak, komunikabideak, Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko Herrialdeetako bulegoak, ...) iharduten dutenak.
- c) *Herrialdeetako Aldundien administrazioa*, hainbat sail ezberdinetan banatua eta zenbait ihardupide (ogasuna, errepideak, nekazaritza, kultura, ...) bere esku dituena.
- d) *Udal administrazioa*, jendearekin hur-hurbileko harremanetan aritzen dena. Udaleko arazoei aurre egiten diena.

Administrazio ezberdin hauek, bakoitzak bere eskumen eremua izanik, sarritan ez da bat ere erreza izaten herritarrentzat non hasten diren honen edo haren beharkizunak zehazkiro jakitea, legez ongi finkatuak badira ere.

3) Euskal Herrian, euskaldunon zoritxarrerako, bi hiztun mota bizi gara: erdaldunak (%70 inguru) eta euskaldunok (%30 inguru). Hizkuntza egoera honek hainbatetan baldintzatzen du euskararen bizitza eta erabilera, euskaldunok erdaldunen artean ito beharrean aurkitzen garela.

4) Euskaldunok, zer esanik ez, bizitzako beste edozein unetan bezala, Administrazioarekin ditugun harremanetan euskara erabiltzeko eskubide osoa dugu. Eta hau ez dugu Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskararen Legeak emaniko zerbait, pertsonok geure jatorrizko hizkuntzan bizitzeko dugun berezko eskubidea baino.

5) Administrazioak, beraz, herritar guztion eskubideak errespetatu eta guztion zerbitzuan inolazko diskriminaziorik egin gabe aritu nahi badu, berarengana hurbiltzen garen euskaldunoi zerbitzuak, ahoz nahiz idatziz, euskaraz eskaini behar dizkigu.

6) Era berean, Euskal Herriak, badu herri den adinean ere bere hizkuntzaren erabilera eta geroa babestuak ikusteko eskubidea. Ondorioz, Euskal Herrian kokatutako administrazioak (bertakoak zein estatukoak) zerbitzuak euskaraz eskaini behar izango ditu, idatziz nahiz ahoz, egoera eta une bakoitzaren arabera.

7) Administrazioak arazo honi aurre egiteko asmoz «hizkuntza eskakizunak» deituak izan direnak jarri ditu martxan. Hala ere, horrek ez du zenbait kasutan guztiz konponduko euskaldunok aspaldidanik jasatzen dugun «diskriminazio» negargarria.

Ez da, alabaina, garbi ikusten zenbateraino konponduko duen egoera hartu den bide horrek. Hizkuntz eskakizunak ezartzerakoan, erdaldunen kexak direla tarteko, salbuespen gehiegi egiten ari dira. Lanpostuak euskara jakin beharra izan arren, bertan dauden zenbait langile ez direnez ezertara behartu nahi, ez zaie euskara ikasteko eperik jartzen, horrela bizitza osoan zehar zerbitzuak, euskaldunon kalterako, erdara hutsean eskaintzen arituko direla.

8) Zenbait administrazioak, ahaleginak egin eta ardura handiak (itzultzaileak) jarriz, behar bada, idatziz produkzio osoa euskaraz eskaintzea lor dezakete. Honek, baina, ez du arazoa guztiz konpontzen. Tarteko horiek direla bide, euskaraz eskatutako zerbitzuak ez dute gazteleraz eskatutakoak bezalako

erantzun bizkorra jasoten. Eta horrek badu hainbatetarako (dirulaguntzak jasoteko, zergaren itzulketak eskuratzeko, presazko baimena lortzeko,...) eraginik, euskaraz eginez atzerapenak gertatzen baitira.

9) Arazo hau, gainera, ez da behar den eran planteatu orain artean. Administrazioak, gizarteko hizkuntz egoera orokorra abiabidetzat hartuz jokatu izan du, euskalduntzeari emateko erantzuna portzentaietan oinarrituz. Funtzionari guztiak elebidun egiten ez diren bitartean, irtenbidea administrazio barruan euskarazko adarrak jartzetik etor daiteke bakarrik. Nahiz eta langile euskaldun asko izan, nik aurrez aurre dudanak euskararik ez badaki, ez dit irtenbiderik ematen.

B) Administrazioko hizkera

Euskaldunok administrazioaren zerbitzuetara zerbaiten bila hurreratzen garenean, oso alfabetauak izan arren, sarri askotan, nekez ulertzen dugun hizkera mota batekin egiten dugu topo. Eguneroko gure euskara motatik zertxobait aldendutako hizkeraren aurrean aurkitzen gara.

Aurrez aurre norbait dugunean ez dugu arazo larriegirik izango galdetzeko aukera dugu eta. Idatziz norberaren kontura erantzun beharra dugunean sortzen zaizkigu arazoak. Sarritan administrazioak aurrean jartzen dizkigun agirietan oso arruntak eta egunerokoak diren hitzak (helbidea, abizenak edo deiturak, data,...) ere ez ditugu ezagutzen.

Honek, jakina ahalegina egin eta etxeko euskara aberastera eramán beharrean, hainbat pertsona, euskara ulertezina dela pentsatuz, erdara erabiltzera bultza dezake. Sarri entzuten da hor-hemenka euskara ere aldatu egin digutela eta horrelako lelokeriak.

Honetan, inoiz administrazio alorreko hizketaran gehiegikeriak egin izan badira ere, badaukagu, beste hainbat eta hainbat alorretan bezala, zer sakondu eta hausnartu. Administrazioko

hizkera berezi horren aurrean sortzen zaizkigun zailtasunek honako iturburuok izan ditzakete:

a) Administrazioa lana oraintsu arte beti erdaraz eskainia izatea. Ez dugu, beraz, alor horretako hizkera jorrotuta. Euskara, bizitzako bestelako alorretan nahikoa ezagutzen dugun arren, administrazioak bere-bereak dituen hitzak ez ditugu inoiz entzun ez eta idatzirik ikusi; horrela, gorago aipatu ditugun hitz errazak (direkzioa/direziñoa, apelliduak, fetxa,...) esangoa ditugu euskal hitzak balira bezala eta besteak zailak egiten zaizkigu orain arte erdaraz bakarrik erabili izan ditugulako. Horrek ekarri digu, bat-batean, euskaldunok hainbat eta hainbat hitz berriren aurrean geure buruak erdibiluzik ikustea.

b) Bestalde, eguneroko bizitzan ez dugu izaten zer ibili zeaztasun arduratan, ezer ulertzen ez dugunean aurrean dugunari galdetu baino ez dugulako izaten. Administrazioak, ostera, gauza zehatzak jarri beharra izaten du, erabiltzen den hitz bakoitzak alde guztietan esangura bakarra eta berbera izatea eskatuz. Hori dela eta, izen tekniko ugari erabiltzen direnez, euskaldun garenok ere halakoak ulertzeko adina euskara, gutxienez, ikasi beharra izango dugu. Eta hori ez dugu lortuko, jakina, errezenara jo eta gehienetan alboan izaten den erdarako testura begiraturaz.

c) Hitz berri ugari agertzeaz gainera, badauka euskal administrazioak zailtasun iturri izaten den beste zerbait larria ere, hain zuzen, euskaraz eskaintzen dituen testu gehienak erdaraz sortu eta ostean euskarara itzuliak izatea. Itzulpena ardura handiz egiten ez bada, euskarazko azaleko jantzia duen erdarazko testuak izango ditugu, gure hizkuntzak bere-bereak dituen hainbat baliabide baztertuz eta euskara bera ere hainbatean trakestuz. Horrela sortu izan zaizkigu azken aldiotan hainbeste kalko negargarri. Eta, jakina, euskal hitzak erabili arren, joskera txarra dutelako ulertezinak gertatuko zaizkigu.

d) Aurreko eragozpen horiek handiak ez balira edo, beste zer kaltegarri bat ere gertatzen zaigu. Egin-eginean ere, hiz-

kuntz batasun-eza. Gorago aipatu dugu hainbat administrazio mota ezberdin ditugula (Estatukoa, Eusko Jaurlaritzakoa, Nafarroako gobernukoa, Foru Aldundietakoa, Udaletakoa) eta, era berean, baita ere, administrazioan erabiltzen diren hitzak zehatzak izan behar dutela. Hori horrela delarik, batasun falta izugarri izan dugu oraintsu arte. Bakoitzak ahal izan duen moduan erantzun izan dio testuak euskaraz jartzeari. Horrek sarritan gauza bera esateko hitz bat baino gehiago erabiltzea ekarri du, irakurleen lana nekagarri bihurtuz.

Une honetan, egia esan, hiztegi bateratuagoak kaleratu direlako eta administrazio garrantzitsuenetako euskarako teknika-riek elkarrekin lanean aritu direlako hainbateteko batasuna lortu da eta eginbidean den ahalegin hori emaitza ederrak ematen ari da.

e) Aipa dezagun, era berean, bat-batean hainbeste testu euskaraz jarri beharrak ere ez digula mesederik ekarri. Itzulpenak (administrazio barruko idatzizko lan gehiena itzulpen hutsa baita) egiterakoan balia bide kaxkarrak izateak eta astirik gabe aritzeak hainbatetan zailtzen du lan hori. Honetarako, alperkerietara eta luzamenduetara jotzeko atxakiak baztertu ondoren, hari-harira datorkigu harako euskal esaera zaharra: «lan lasterra, lan alferra». Larri eta estu ibiltzeak ez duela laguntza handirik ematen aitortu behar, bada!

f) Azkenik, aurreko arazoak gutxi ez balira edo, handiena, euskarak, gaurkoz, administrazioko esparru gehienetan erabilerara sinboliko hutsa izatean datza. Euskara betegarri gisa hartzen da gehientan. Legez ere, nolabaiteko dudarik edo auzirik izanez gero, erdarako testuak du indarra, euskara bigarren mailako zerbait baino ez delarik. Euskararen egoera hori konpontzen ez bada, administrazioko langileak ardura handirik gabe erdaraz jarraituko dute. Zerbait aurreratu da, bai, inbertsio handiak egin ondoren bertako langileak euskalduntzean, baina ez da garbi ageri nork behartuko dituen euskara eguneroko lanean erabiltzera.

C) Irtenbideak:

Gogoratu berri ditugun arazo guzti horiek larriak badira ere, euskara aurrera ateratzekotan, handik edo hemendik, goitik edo behetik egoerari irtenbideak bilatu beharra dugu. Ez da erraza, jakina, gauetik goizera, erdara hutsean aritu den erraldoia bide zuzenera ekartzea.

Jarraiko lerroetan administrazioa euskararen zerbitzuan jartzeko nondik norakoak laburbildu nahi nituzke, handi-handika eta azaletik baldin bada ere. Honako hauek lirатеke:

1) Jendearekin harremanetan egon behar duten langile guztiek elebidunak izan beharko lukete (bat baino gehiago elkarrekin batera ari direnean, norbaitek euskararik jakin ezarren) euskara erabili nahi duenari horretarako duen eskubidea praktikan onartzeko. Beti bulego guztietan nork euskaraz erantzun egon beharko luke.

2) «Euskara hutsezko administrazio adarrak» sortu behar dira. Ez da nahikoa atezainak euskaraz egitea edo eta sail batetako idazkariak, euskaldunari arazoa konpondu behar dionak ez baldin badaki hutsaren hurrengoa izango delako. Horrek, eskaini beharreko zerbitzuak hizkuntza abiaburutzat hartuz antolatzea eskatzen du. Bestalde, ezin da administrazioaren emaitza itzulpegintzaren esku utzi. Euskaraz aritzeko gai izango diren administrariak behar dira maila eta alor guztietan.

3) Ezinbestekoa da administrazioarekin harremanetan jartzen garen euskaldun guztiok zerbitzuak euskaraz jasotzeko dugun eskubidea betetzea exigitzea. Oso onuragarria gertatu da euskara hutsean iharduteko erabakia hartu duten udalen joera. Administrazioetik gazteleraz bidalitako paperak atzera itzultzeak eragina izan du eta ardura edo, behinik behin, kezka sortu. Halakorik egin ezik administrazio barruko erdaldunek inolazko arretarik gabe nahi dutena egiten jarraituko dute, goikoek idazki guztiak euskaraz eta gazteleraz bidaltzeko aginduak eman arren. Udal euskaldunen ekimen hori oso egintza eragin-

korra eta administrazioa euskalduntzeko bultzada izugarria izan dela frogatu izan dut.

4) Aparteko arduraz zaindu behar da hiritarrekin, batez ere, idatziz erabili behar den euskara. Herritarrekin erabili behar den euskarak erraza eta ulergarria izan behar du, jendea euskara erabiltzetik ez aldentzeko. Honetan, zehaztasunaren edo eta ez dakit zeren izenean eginiko zenbait astakeria baztertu beharra dago. Administrazioko hizkuntzak, zehaztasuna zaindu arren, jendearengandik ahalik eta hurbilena izan behar du.

5) Hizkuntzari berari dagokionez, ahalegin handiagoa egin beharko litzateke erdararen morrontzatik askatzeko. Horrek, baina, langileak ongi prestatzeaz gainera, lana baldintza egokietan, presa larregirik gabe egitea eskatzen du, beste hizkuntzan hartutakoa barneratu eta ongi egosi ondoren euskara onean eskaini ahal izateko. Administrazioko hizkera ezin dugu, erdararen kalko hutsa egin. Geureganatzen jakin behar dugu, baliagarri gerta dadin.

6) Administrazioko lana esparru oso ezbedinetan gauzatzen denez, ezinbestekoa da zer eskaini aztertzeaz batera, nori eta nola eskaini ere sakontzea, ez baita berdina legelariak erabili beharreko dekretu batetako euskara tekniko zehatza, baserritarrei zenbait egitarauetan eskaini beharrekoa edo eta umeentzat egiten diren liburuxketan erabiltzekoa. Pertsonak, egoerak eta gaia oso kontutan hartuz aritu beharko da, bada.

7) Horretaz gainera, euskaldunongan euskararen aldeko kontzientzia sortu behar da, administrazioa hurbiltzean gure hizkuntz-eskabideak betetzea eska dezagun. Euskarazko zerbitzua, Administrazioak berak, jendea eskatzen ibili gabe eskaini beharko luke. Hori egin beharrean oraindik oztopo ugari jartzen jarraitzen duenez, gure joerak gogortu beharra ikusten dut. Gorago aipatu dudanez, onura ugari ekarri ohi du eskubideak irmoki defendatze horrek.

8) Azkenik bideak jarri eta neurriak hartu behar dira, administrazioko langileek ikasi duten edo lehendik dakiten euskara

erabil dezaten. Horretan hainbesteko inbertsioa egin ondoren, benetan euskararen erabilera bultzatzen ez bada, ezer gutxi lortuko dugu. Egin-eginean ere, euskal administrazioak ezin du euskararen erabilera honen edo haren borondate edo gogoaren pentsutan utzi.

Izan ditzazuela eskaini dizkizuedan gogoera hauek, arazoaren nondik norakoa hurbilagotik ezagutzeko.

Patxi Uribarren



**ESTUDIO
FOTOGRAFICO**

ARGALKARI

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)*



ZARZEL^{SL} VIDEO PROFESIONAL

<p>San Miguel kalean, 14 Urrut: 673 0509 48340 Amorebieta</p>	<p>Trañabarren, 13 Bloque 1-4 Urrut: 681 1009 48220 Matiena (Abadiano)</p>
--	---

JUAN MANUEL SASUATEGIAVISA: 444 3500 - Abonado 868